

**Ekialdeko Timor** Nazioarteko indarrak hedatzen

INDONESIAKO SOLDADUEK «LAGUNTZA OSOA» EMAN DIETE NAZIOARTEKOEI, AZKEN HORIEN BURUAREN ARABERA

## Dili hiria eta aireportua kontrolpean hartu dute Interfeteko tropek

■ Soldaduak armak eskuan zituztela patruilatu ziren atzo hiriko kaleetan, eta erasoei tiroka erantzuteko agindua zuten

■ UNAMETen ordezkari bat iritsi zen Ekialdeko Timorrera, horren independentziari bide egiten laguntzeko

■ Indonesiak ez du Timorren larrialdiko egoera kenduko, «egoera behar bezain lasaia» ez delako

Erredakzioa / Donostia

INTERFET nazioarteko indarreko lehen soldaduak atzo hasi ziren heltzen Ekialdeko Timorko Dili hiriburura. Goizaldeko 07.00ak inguruan lurrreratu zen aireportuan aurreneko Hercules C-130 hegazkina (Euskal Herrian goizaldeko 01.00a zenean gutxi gorabehera), eta 2.300 soldadu hedatu ziren egunak aurrera egin ahala. Australia, Zeelanda Berria eta Erresuma Batukoak ziren soldaduak.

Aireportua eta hiriburuko kaleak kontrolpean hartu zituzten nazioarteko tropek. Indonesiako soldaduen «laguntza osoa» izan zutela esan zuen Interfeten buruzagi Peter Cosgrovek. Baina, badaezpada ere, metrailetak eskuan zituztela patruilatu ziren kaleetan nazioarteko soldaduek. Ezein erasoren aurrean tiro egiteko agindua zuten, gainera.

Indonesiako eta nazioarteko soldaduek batera garraiatu zituzten tresna militarrik, Interfetek kokatu zituen koartelara. Elkarlaguntza hori posible izan da Cosgrovek eta Indonesiaren Ekialdeko Timorko soldaduen buruzagi Kiki Syahnakrik hala adostu zutelako herenegun.

### Muinoiei kea zeriela

Hiriburua txikituta zegoen, baina lasai. Muinoetan ke adarrak ikus zitezkeen. Antza denez, milizien guneetatik aireratutako kea zen.

Nazioarteko tropak hedatzen hasi arren, larrialdi egoera ez da ezabatu. Egun batzuk iraungo du ziurrenik. Indonesiako Indar Armatuen buruzagi goren Wirantok esan zuenez, egoera ez da hain lasaia.

UNAMET Nazio Batuen misioko ordezkari bat iritsi zen Dilira Interfeteekin. Joan den astean hiritik alde



Australia eta Indonesiako soldaduak, batera, kamioietan, Dili kanpoaldean.

EMMANUEL DUNAND / EPA



CHARLES DHARAPAK / AP

Interfeteke soldadu bat, Diliko portuan, errefuxiatu batzuek inguratuta.

egin beharra izan zuten nazioarteko lankide guztiek, paramilitarreatatik. Orain Timorren independentziari bide egiten lagunduko dute.

Nazioarteko soldaduak 3.200 izango dira zazpi egun barru, eta urriaren erdirako zabalduko dira guztiak: 7.500.

### UNHCR: «Habibiek itzultzen lagunduko die errefuxiatuei»

■ UNHCR Nazio Batuetako Errefuxiatuentzako Goi Komisariatu Sadako Ogatak atzo esan zuenez, «Mendebaldeko Timorren errefuxiatuta dauden 200.000 pertsonen beren etorkizuneko itzulera erabaki behar dute». Sadako Ogata Indonesiako presidente Jusuf Habibiarekin bildu eta gero, kazetariei prentsaurrekoa eskaini zien.

«Indonesiako presidentek Ekialdeko Timorko errefuxiatuak beren etxetara itzultzeko, ahal duen gutzia egingo duela» baieztatu zuen Ogatak.

Izan ere, Mendebaldeko Timorren Ekialdeko Timorko 200.000 errefuxiatu daude. Errefuxiatu horiek Indonesiako militarrek derrigortuta eraman eta gero iritsi ziren Mende-

baldeko Timorrera. Ildo horretatik, Indonesiaren aldeko miliziek Ekialdeko Timorko sarraskiez gain, mendebaldean ere egiten hasi direla dirudi, lekuko adierazpenen arabera. «Errefuxiatuak itsasontzietan hartu, eta geroxeago, itsasontziak hutsik agertzen dira», zioen lekuko batek.

Izan ere, giza erakundeek salatu dutenez, «Mendebaldeko Timorren errefuxiatuak erailtzen ari dira, eta horrez gain, gorpuk itsasora botatzen dituzte, betiko desagertzeko». Hala ere, Indonesiako Armadako buruzagi Wiranto jeneralak baieztapenak gezurtatu ditu, eta «giza erakundeak salatutako milaka erailketak ez direla gertatu» azpimarratu zuen.